

AITA KAPUTXINOEN
Misiotako Eresiak

Bea diren Baimenakin



Neketako Ama-Birjinaren Irarkolan
Iruña.—1926

AITA KAPUTXINOEN
Misiotako Eresiak

Bear diren Baimenakin



Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan
Iruña.—1926.

Misioko Deia

*Atoz pekataria,
Atoz Elizara,
Jaungoikoaren itza
Gogoz aditzera.*

Pekatuan oera
Etziten bazera,
Menturaz infernuan
Esnatuko zera.

Pekatu enuria
Bete ez dezazun,
Aditu Jaungoikoak
Zer esaten dizun.

Urterik asko Jaunak
Zuri eman dizkitzu,
Eta danak pekatuz
Zuk bete dituzu.

Ez egon pekatuan
Ez egon luzaro,
Damu izan ez dezazun
Alferikan gero.

Misioko denboraz
Baliatu gabez.
Daude, bai, infernuan
Gaur asko negañez.

Barkazioa

Noiz arte bear dezu
Egon pekatuan
Ikusirik zaudela
Iya infernuan.
Damuz begiraturik
¡Afen! animari
Biguin bedi kristaua
Biotz gogor ori.

Ni naiz ¡oh Jesus ona!
Zure boferua,
Damu det mila bider
Zu ofenditua.

Jesus agertzen zaizu
Dena uraturik
Odola dariola
Gurutz-iltzaturik

—
Emen naukazu, Jauna
Negañez urturik
Nere kulpa guztiaz
Oso damaturik.
Jesus, eskatzen dizut
Biotz biotzetik
Bedeinka nazazula
Gurutze ortatik.

Andre Mariari Agura

- Jaungoikoak gorde zaitzala, (1) Efegiña,
Efukitasunezko Ama,
G—Bizitza, gozotasun eta gure ustea,
Jaungoikoak gorde zaitzala,
Zure deiez gaude
- G—Ebaren ume erbestetuok;
Zugana gaude naigabez
Samintasun eta negafez
- G—Negañezko ibar onetan.
Ea, bada, Andrea,
Gure Bitartekoa,
- G—Itzuli itzatzu gugana
Zure begi samur-gozo oiek,
- G—Eta erbeste onen ondoan
Erakutsi egiguzu Jesus
Zure sabelak emandako
Bedeinkatua.
- GG—¡O Biotz bera!
- GG—Ama laziana!
Ama maite-gozo Maria,
Otoitz egizu gugatik
Jaungoikoaren Ama ona,
- GG—Iritxi dezagun
- G—Jesukristok agindua
Amen, Jesus.

(1) Lodi auetan guztietan jetxi-aldia egin.

Artzai Onaren Amari

*Deiezka gauzkatzu,
Zeruko Artzaia:
Betiko onda zazu
Gugandik etsaia.*

Gure inguruan
dabil otsoa,
ozkatu naiean
artaldetxoa:
Zuk zere makilaz,
Artzai gozoa,
ondarazi zazu
suzko zokora.

Ni naiz, Ama maite,
ardi galdua,
ainbeste alditan
len ozkatua:
Zugana nator gaur
ondamutua;
jaso nazazu, ba,
naiz ondatua.

Zein ordu txafean
alde egin nuen;
otso gosetiak
ai! erne zeuden:
osorik galduko
ezpaninduten
beařik Zugana
itzuli nintzen.

Zure ardi eta
axuritxoak
nai degu beti izan
txintxo-txintxoak:
ez gaitzan ondatu
betiko otsoak
bedeinka gaitzala
Jesus Aurtxoak.

Iltzeko zorian
Jesus zegola
Gurutze egufean
iltzez josi-ta,
gure Artzaitako
autatu zinduzen,
gu Zure kontura
utzi ginduzen.

Ordutikan, Ama
maite ta laztan,
oi, zein Artzai ona
zaitugun izan!
Ardiak zuk ainbat
maitatzen dituen
artzairikan ezta
iñon arkitzen.

Egizu Zuk Maria

*Egizu Zuk, Maria,
Gugatik eregu
Eriotzako orduan
Ez gaitezen galdu.*

Pekatoriok Ama,
Birjiña, zaitugu:
Zugan gure biotza
guk ipintzen degu.

Zure izen santua
balia bekigu,
Zure biotz onean
ustea guk degu.

Sekulan inor ezta
ta bai, Maria, Zu,
Ama izan ezkeru
Donzela gelditu.

Jaungoikoaren Ama
egitiik zakusgu:
jafen! zure semetzat
ezagun gaitzazu.

Zure Semeak gaitu
Zerutik bilatu:
¿Nola Zuk naiko dezu
Gu gaitezen galdu?

Damu det Jauna

*Damu det, Jauna, biotz guzitik
Zu ofenditu izana;
Ez, ez geiago pekatu-
Nere Jaungoiko laztana.*

Miñaren miñez, Jesus maitea,
daukat biotza lerturik,
ikusirikan nere bititza
dena pekatuz beterik.

Zure oñetan orain naukazu
begi-biotzak urtutzen,

bafu-bafuko negafarekin
barkazioa eskatzen.

Orain bezela denbora baten
ezagutu izan bazindut,
iñolaz ere, Jesus maitea,
ofendituko etzindut.

Auferakoan izango zera
nere biotzaren jabe:
beste guziak galduta ere
ez naiz izango Zu gabe.

Esnatu zaitte

Esnatu zaitte pekataria
Orain da, orain, ordua:
¡Begira gaxua
Asafe Jainkua!
Ordu danean egin zazu
Jaunkoarekin pakea.

Begira gaxua
Zure pekatua.

Begira gaxua
Eriotz-ordua.

Begira gaxua
Infernuko sua.

Begira gaxua
Betiko galdua.

Begira gaxua
Jauna asafetua.

Damu degu guztiok

Danak

*Jesus gure Jaun maite
amoriotsua,
damu degu guztiok
zu ofenditua.*

Batzuek

— 1 —

Josirik ikustean
gurutze oñetan Zu,
ufikariz biotza
¿nork ufatuko ez du?
baita baleuka ere
afi biurtua.

— 2 —

Burutik oñetara
gorputz eder ori
zauri bat egiñikan
dezu guzi ori.
¡ai! zori gaiztokoa
gure pekatua!

— 3 —

Oñak, esku ta albo
burniz zulaturik
bizkar-aldea azotetz

Dana zatiturik.
arantza gogofakin
josirik burua.

— 4 —

Ainbeste min gogofez
eririk zerala,
artzai bat ardiaren
ondoren bezela,
gure bila zabilta
erukiz urtua.

— 5 —

Jesus Zu gure bila
¿Ta guk iges Zuri?
Gure bear zerala
Zu, Jauna, dirudi,
¡oi gizon esker-gabe
gaizto zoratua!

— 8 —

¡Ai Ama maite Maria!

Ai! Ama maite Maria!
Ama, ni zuganatu!
Zugan dut uste guzia
Ama, ni zeruratu!

—

Amaika etsaik zuregandik
Ama, nai naute ufundu,
Zugana nator, Zuk bakarik
zeruratu nazakezu.

—

Oroi zaitetz bein zure afean
belaunikatu nintzela;
ta betiko nere Amatzat
antxe artu zindudala.

—

Zure eskutik gorde nazazu
ai! Ama maite Maria!
pekatuak zikindu ez dezan
nere anima garbia.

—

Nik beti-beti bizi nai dut
Ama, Zure itzalpean,
egun batez Zu ikustera
zerura joan artean

—

— 9 —

Etsai artean ibili naiz
nere burua galdurik;
zure ondora nator orain,
bide gaiztoz damaturik.

Lafen artean nasi-eta
dagoan ardi gaixoa;
ofen antzean egondu naiz,
zeruko Ama gozoa!

Zure esku legun da biguñaz
askatu nauzu, ai Ama!
argatikan Zuri zor dizut
nere bizi ta arima.

**Laudate, laudate,
Laudate, Mariam.**

O Ama Birjiña
gozo-gozua
Entzun gaur zerutik
gure efegua.
Gora Jesus maite
biotzekoa,
Gora Ama Birjiña
gozo-gozoa.
Ama artu gaitzatzu
zure itzalpean,
eztugu bizi nai
pekatupean.
Birjiña gozoa
begira guri

gogor jo, Amatxo,
gure etsaiari.
Infernuko otsoa
etortzen ba-da,
ez gaitzan ozkatu,
Ama begira.
Bera ago gaiztoa,
bera biraua!
bera infernukoal
bera deabrua!

Jesus'enak
Jesus'enak gera

Jesus'enak betiko
Izango gera.

—
Jesus eta Maria
dira guretako
maitien-maitienak
orain da betiko.

Jesus'en aldekoak
nai degu beti izan
eta aren etsaiak
iduki oinpian.
Jesus'en aldekoak
baldin bazerate,
Jesus'en izen ona
goratu zazute.

Gora zagan

Gora zagan Misterio aundia,
Jainko Jauna ostian estalia;
zuek aingeruak, zeruko jendea,
adora zazute zuen efegea.

Jainko Jauna gure Salbatzailea
mundu zeru guzien egilea;
jexi zerutikan guri laguntzera,
atoz maitekiro gu bedekatzera.

Maitetasun, ospe azken gabea
Irutasun santuak dituela;
oore Irueti batasun berean
orain eta beti mendeen mendetan.

Jauna Artzerako Egitekoak

Jesus ona siñisten dizut gogoz
neregatik zaudela Aldarean:

zure gorputza ta odol guzia
jaten dela zeruko mai ortan.

Ez naiz gauza, lotsaz esaten dizut
ez naiz gauza, Jauna, Zu artzeko
baña ala ere etofi nai bazera
presta nazu nigan sartzerako.

Gaiztoa naiz, saldu zaitut ai! Jauna,
Gaiztoa naiz, damaturik nago:
Ez ukatu zure efukitasuna
Zu bazaitut aita baña aitago.

Zugan, Jesus daukat uste guzia,
zure deiak «Atoz—dit—nigana»
ona zera ondasun ituria,
argatikan Zugan zai det Jauna.

Artzai ona, nere maite-maitea,
zure naiez urturik naukazu:
aztu bazaitut oraindañokoan,
gaurgero beti Zurea nauzu.

Zeruko Ogi ta janari gozoa,
jantzialien poz eta atsegiña:
etxi laster, jetxi nere gogora,
atoz, atoz, nere Jaungoikoa.

Umien Jaunartze aurrerako

Eriak.—Aurak, urun zaitzte pekatu gaiztotik,
begiak aldendurik atsegiñetatik.

Aurak.—Agur, o pekatua, agur bai betiko!
Jesusgana goazi orain sekulako.

Eriak.—Aurak eldu zaitzute egun edefena;
orain datorkizute Jauna biotzera.

Aurak.—O egun doatsua argitu zaiguna!
nork aditu dezake gure zoriona?

Eriak.—Aurak, urbil zaitzte laster Jesusgana;
biotzean artzera zuen Jaun lastana

Aurak.—Atoz, Jesus maitea, len baño len atoz,
ez gure zoriona luzatu geiago.

Eriak.—Aurak, maita zazute zuen Jaungoikoa;
eskeñi zaiozute betiko biotza.

Aurak.—Ona, Jesus maitea, mai aundi onetan
zure aurak gauzkatzu gafa biotzetan.

Eriak.—Zeruko Jainkoaren odol ta gorputzak
begira zaitzatela gure aur maiteak.

Aurak.—Ona, ba-datorkigu gure Jaungoikoa;
zeru guzia dator gure biotzera.

Umien Jaunartze ondorako.

Eriak.—Aurak, zuen biotzak zer ote diote?
zertan ari dirade? esan zaiguzute.

Aurak.—Atsegin gozoetan orain gera sartu,

Jaungoikoa dalako gaur gureganatu.

Efiak. — Bai mesede aundia orain ordu ontan izan dezute aurak zuen biotzetan.

Aurak. — Oi zer egingo degu nola mintzatuko, Jesusi esker onak ongi biurtzeko?

Efiak. — Ortxe dago zuekin zuen bafenean; gorde zazute ongi zuen biotzean.

Aurak. — Jesus degu gurekin, gu ere Arekin biziko gera beti-beti elkafekin.

¡Kristaua entzun!

Kristau gazte maitea, afen entzun zazu, nere esan gozoak afen adi itzazu; zerurako bidea dizut erakusten jafi zaite gogotik zu ori ikasten.

Goizdanik bear dezu maitatu Jainkoa, nai badezu iritxi betiko gozoa. Gazte gaiztoak dire geienak ondatzen: gazte zintzoak befiz zeruaz gozatzen.

Bekatua dalako gaitz guzien gaitza, ařentzat izan zazu gofoto bizia; artatik beti ere begiratu zaitez, bizi zeran artean ortan saia ziřez.

Sakramentuetara urbilduz safitan sendo egongo zera zure asmo onetan an emango zaizkitzu doai bereziak eřezki garaitzeko zure etsai guziak.

Maite zazu etxea, bizitze gordea, ixiltasuna, lana, zure eginbidea, ekin otoitzari ta irakurtzeari, irakurřia beti gogoan ibili.

Bizitzaren lorea da gaztetasuna, adin guzietan den maitagarřena; gaizkira makur bedi, ez da iřon gelditzen; ongira itzul bedi, a! zein azkara den.

Azkar dire gazteak, gartsu eta bizi zařak ordea gogor, astun, uzkur, nagı; ek uda dirudite bere egun luzetan ok befiz negu latza izotz, elurtetan.

Etsaiarentzat bada izango ote dezu zure adin autua, gaztea, esazu? biziaren onena eman gaiztoari ta ondara gordetzen diozu Jaunari?

Zuk, o Jesus maitea, gure Jabe ona jende gazte zintzoak maite dituzuna, egiazko zintzoak beti itzazu lagun beren asmo onetatik ez daitezen ufun.

